

10 – BASTIDA - MIRANDA DE EBRO

(2017-02-18)

EZAUGARRIAK

DISTANTZIA: 25,1 km.

DESNIBELA: + 457 m. / - 458 m.

DENBORA: 6 or. - 6 or. 15´

Etapa ia laua. Bodegas Altas de Labastidako aparkalekutik irtengo gara (468m.), ezkerretara hartuko dugu Bastidatik Harora doan errepidea eta Ebro gainetik lehenengo zubia zeharkatuko dugu, Araba eta Errioxa probintziak bereizten dituen. Mahastietatik jarraituko dugu eta Gr-99 Ebroko Ibilbide Naturala hartuko dugu, zubi erromaniko polit batera eramango gaituen. Toki horretan elkartzen da Santiagoko Bidea Gr-99 bidearekin eta Ebroren eskuin aldetik jarraitzen du Briñas herrira arte (Errioxako ataria). (452m.) 4,3 km.

Herria batetik bestera igaroko dugu Lr-132 errepidea gurutzatzeko eta Santiago Bideko pista bat hartuko dugu. Mahasti artean aldapa zati bat egin ondoren GR-99 bidea hartuko dugu berriz eta muino batetik igaroz (697m.) Gatzaga Buradon herrira eramango gaitu. (Arabar Errioxako herririk politenetako bat) (501m.) 9,4 km.

Harresiz inguratutako herria batetik bestera pasako dugu eta Erdi Aroko ate batetik igaroz, burdin-hesia eta guzti dauka, berriz ere Gr-99 bidea hartuko dugu N-124 errepidera jaitsi arte. Bidezidor alternatibo batzuk jarraitzen saiatuko gara baina batzuetan errepide bazterretik joan beharko dugu eta horregatik oso adi eta kontuz joan behar dugu, errepide horretan trafiko handia ibiltzen da eta. Berriz ere Gr-99 bidea hartuko dugu, Inglares ibaiko zubi ondoan, Venta del Río-ko hondakinetatik pasako gara eta bidezidorra jarraituko dugu Zanbrana herriraino. (459m.) 15,6 km.

Bi zubi gurutzatuko ditugu; N-124 errepidekoa eta Ap-68koa eta autopistaren paralelo doan bidezidorretik jarraituko dugu Zadorra ibaiko zubira arte (Araba

eta Burgos arteko zubia). Miranda de Ebroko lurretan sartuko gara eta El Lago urbanizazioa igaro ondoren, ezkerretik, biribilgune batean, Ebro gaineko zubi luze bat gurutzatuko dugu eta amaieran zubi azpitik atzera egingo dugu Gr-99 bidea berriz hartzeko Ebro ibai ondoan (453 m.) 21,4 km.

Ebroko Bide Naturaleko zidorretik jarraituko dugu zereal soro eta makal artetik eta Miranda de Ebroko lehenengo finka eta baratzeetara iritsiko gara.

Ibai ondotik joaten den "Camino de la Arboleda" hartuko dugu, eta haurrerago utziko dugu Centro Sagrados Corazones (467m.) inguruan dagoen parking bila etapari amaiera emateko. 25,1 km.

Aukeratzeko: menuak edo ogitartekoak. Autobusean hitz egingo da.